Miren Larrinaga	12	1	1	C1	F	501	5	0	2561,9	Administraria	15.972,04 €	41.882,40 €	25,20	3.490,20 €	10.554,36 €	225,00 €		1.135,96 €	11.915,32 €	53.797,72 €		
GUZTIRA 611											40.498,64 €	110.828,76 €			21.458,90 €	385,00 €	0,00 €	2.831,78 €	24.675,68 €	135.504,44 €		
Z.O. GUZTIRA												359.161,20 €			81.346,99 €	1.215,00 €	450,00 €	9.568,72 €	92.580,71 €	451.741,91 €		

2015KO AURREKONTUA - PERTSONAL GASTUEN ERANSKINA

IZEN ABIZENAK	H I L E	E G K O	%	T	KM	Epi	GC	C D E	T R I	Lanpostua	Basicas	LANSARIAK GUZTIRA	SS %	Base cotizacion	160.01 Gizarte segurantz	162 Gizarte-gastuak funtz. eta ez labor.	163 Gizarte-gastuak laboralak	160.04 ELKARKIDETZA	GIZARTE GASTUAK GUZTIRA	ENPRESAREN GASTU OSOA		
INGURUMENA																						
Mikel Jaio	12	1	1	A1	F	501	1	20	3981,08	Zuzendaria	23.969,68 €	58.978,64 €	25,20	3.606,00 €	10.904,54 €	175,00 €		1.695,82 €	12.775,36 €	71.754,00 €		
Luis Lonbide	12	1	1	A2	F	501	2	15	3555,15	RSU Teknikaria	21.265,86 €	52.434,34 €	25,20	3.606,00 €	10.904,54 €	175,00 €		1.384,60 €	12.464,14 €	64.898,48 €		
Arantzasu Uribesalgo	12	1	1	C1	F	500	2	10	2471,64	Herri-bide zerbitzuen arduraduna	15.601,04 €	37.009,28 €	25,90	3.084,11 €	9.585,40 €	130,00 €		1.135,96 €	10.851,36 €	47.860,64 €		
Cristina Iralagoitia	12	1	1	A2	F	501	2	0	2679,25	Ingurugiro Teknikaria	19.688,76 €	42.168,42 €	25,20	3.514,04 €	10.626,44 €	150,00 €		1.384,60 €	12.161,04 €	54.329,46 €		
Agurne Arizmendi	12	1	1	C1	F	501	5	0	2178,06	Administrataria	15.275,82 €	35.907,06 €	25,20	2.992,26 €	9.048,58 €	150,00 €		1.135,96 €	10.334,54 €	46.241,60 €		
Juan M ^a Poza	12	1	1	C1	L	500	8	10	2641,86	Mekaniko	14.951,30 €	40.595,52 €	32,80	3.382,96 €	13.315,33 €		150,00 €	1.135,96 €	14.601,29 €	55.196,81 €		
Manex Larrinaga	12	1	1	C2	L	506	9		2039,09	Garbigune gidaria	12.286,26 €	30.989,56 €	38,70	2.582,46 €	11.992,96 €	400,00 €		949,48 €	13.342,44 €	44.332,00 €		
Inmanol Ayala	12	1	1	C2	L	506	9		2039,09	Garbigune gidaria	12.286,26 €	30.012,64 €	38,70	2.501,05 €	11.614,89 €	400,00 €		949,48 €	12.964,37 €	42.977,01 €		
Rafael Lopez	12	0,5	0,5	E	L	508	10		911,55	Zaintzailea	5.950,14 €	14.919,10 €	35,20	1.243,26 €	5.251,52 €	500,00 €		949,48 €	6.701,00 €	21.620,10 €		
Joseba Arejolaleiba	12	1	1	C2	L	508	10		1823,09	Zaintzailea	12.611,20 €	28.942,48 €	35,20	2.411,87 €	10.187,75 €		325,00 €	949,48 €	11.462,23 €	40.404,71 €		
Maddi	12	1	1	A2	I	501	2			Ingurugiro Teknikaria	19.688,76 €	37.509,50 €	30,70	3.125,79 €	11.515,42 €	200,00 €			11.715,42 €	49.224,92 €		
Marta	12	1	0,5	A2	I	501	2			Ingurugiro Teknikaria	9.844,38 €	19.420,31 €	30,70	1.618,36 €	5.962,04 €	250,00 €			6.212,04 €	25.632,35 €		
Epele Ordezkapenak	3	1	0,25	C2	AB	508	10			Zaintzailea		7.235,62 €	35,20	602,97 €	2.546,94 €		600,00 €		3.146,94 €	10.382,56 €		
Aitor Ugalde	12	0,75	0,75	C2	L	508	10		2081,44	Zaintzailea	9.214,70 €	31.094,00 €	35,20	2.591,17 €	10.945,09 €	180,00 €		949,48 €	12.074,57 €	43.168,57 €		
Andoni Larrinaga	12	1	1	C2	L	508	10		2081,44	Zaintzailea	12.286,26 €	32.559,38 €	35,20	2.713,28 €	11.460,90 €	160,00 €		949,48 €	12.570,38 €	45.129,76 €		
José Luis Mena	12	1	1	C2	L	508	10		2198,45	Zaintzailea	12.286,26 €	34.685,98 €	35,20	2.890,50 €	12.209,46 €	300,00 €		949,48 €	13.458,94 €	48.144,92 €		
Joseba Arginzoniz	12	0,25	0,25	C2	L	508	10	2		Zaintzailea	3.071,57 €	10.364,67 €	35,20	863,72 €	3.648,36 €	300,00 €		949,48 €	4.897,84 €	15.262,51 €		
Danel Goikolea	12	1	1	C2	L	508	10		2081,44	Zaintzailea	12.286,26 €	31.094,00 €	35,20	2.591,17 €	10.945,09 €	175,00 €		949,48 €	12.069,57 €	43.163,57 €		
Garbigune Ordezkapenak	5	1	0,42	D	AB	508	10	0		Zaintzailea		12.955,83 €	35,20	1.079,65 €	4.560,45 €		600,00 €		5.160,45 €	18.116,28 €		
Javier Eraña	12	1	1	E	L	506	9		2035,55	Gidaria	11.575,34 €	31.518,06 €	38,70	2.626,51 €	12.197,49 €		300,00 €	949,48 €	13.446,97 €	44.965,03 €		
José Cruz Zubillaga	12	1	1	E	L	507	10		1898,89	Zamakaria	10.668,14 €	30.899,26 €	35,20	2.574,94 €	10.876,54 €	400,00 €		949,48 €	12.226,02 €	43.125,28 €		
Gregorio Mondragón	12	1	1	E	L	507	10		1898,89	Zamakaria	10.668,14 €	30.899,26 €	35,20	2.574,94 €	10.876,54 €	350,00 €			11.226,54 €	42.125,80 €		
Javier de la Torre	12	1	1	E	L	507	10		2035,55	Gidari-Zamakaria	10.926,02 €	32.812,50 €	35,20	2.734,38 €	11.550,00 €		350,00 €		11.900,00 €	44.712,50 €		
José Cruz Orobengoa	12	1	1	E	L	507	10		2233,4	Gidari-Zamakaria	10.926,02 €	35.582,40 €	35,20	2.965,20 €	12.525,00 €		350,00 €	949,48 €	13.824,48 €	49.406,88 €		
Julián Jausoro	12	1	1	E	L	507	10		1898,89	Zamakaria	10.668,14 €	30.899,26 €	35,20	2.574,94 €	10.876,54 €	450,00 €		949,48 €	12.276,02 €	43.175,28 €		
Jon Lete	12	1	1	E	L	506	10		2035,55	Gidari-Zamakaria	11.575,34 €	32.381,02 €	38,70	2.698,42 €	12.531,45 €		325,00 €	949,48 €	13.805,93 €	46.186,95 €		
David Carrasco	12	1	1	E	L	507	10		2039,09	Gidari-Zamakaria	10.926,02 €	30.273,18 €	35,20	2.522,77 €	10.656,16 €	150,00 €			10.806,16 €	41.079,34 €		
Santiago Concepción	12	1	1	E	L	507	10		1993,05	Zamakaria	10.668,14 €	30.060,10 €	35,20	2.505,01 €	10.581,16 €	200,00 €			10.781,16 €	40.841,26 €		
Ordezkapenak	12	1	1	E	AB	506	9	0		Gidari-Zamakaria	11.575,34 €	32.381,02 €	38,70	2.698,42 €	12.531,45 €	0,00 €	300,00 €		12.831,45 €	45.212,47 €		
Informatzaileak	12	7	7		AB	501	7			Informatzaileak		200.900,00 €	32,10	2.391,67 €	64.488,90 €	1.500,00 €			65.988,90 €	266.888,90 €		
INGURUG. GUZTIRA											342.741,14 €	1.107.482,39 €			356.916,93 €	2.730,00 €	7.265,00 €	21.165,62 €	388.077,55 €	1.495.559,94 €		

2015KO AURREKONTUA - PERTSONAL GASTUEN ERANSKINA

IZEN ABIZENAK	H I L E	E G k o	%	T	KM	Epi	GC	C D E	T R I	Lanpostua	Basicas	LANSARIAK GUZTIRA	SS %	Base cotizacion	160.01 Gizarte segurantza	162 Gizarte-gastuak funtz. eta ez labor.	163 Gizarte-gastuak laboralak	160.04 ELKARKIDETZA	GIZARTE GASTUAK GUZTIRA	ENPRESAREN GASTU OSOA		
AGENTZIA																						
Igor Ezpeleta	12	7	0,58		P	501	1			politikoa		15.181,83 €	31,90	2.168,83 €	8.302,29 €	299,00 €		0,00 €	8.601,29 €	23.783,12 €		
Koldo Azkoitia	12	1	1	A1	F	501	1	20	3650,22	Arduraduna	23.366,84 €	56.779,24 €	25,20	3.606,00 €	10.904,54 €	300,00 €		1.695,82 €	12.900,36 €	69.679,60 €		
Rakel Gartzia	12	1	1	B	F	501	1		2578,32	Enplegu teknikaria	18.946,48 €	38.758,72 €	25,20	3.229,89 €	9.767,20 €	140,00 €		1.135,96 €	11.043,16 €	49.801,88 €		
Naiara Aranburu	12	0,5	0,5	C1	F	501	7		1089,03	Administrataria	7.637,91 €	16.148,79 €	25,20	1.345,73 €	4.069,50 €	100,00 €		1.135,96 €	5.305,46 €	21.454,25 €		
Hainbat lan	3	1	0,25		AB	501	7		0	Administrari Laguntzailea		8.074,40 €	32,10	672,87 €	2.591,88 €		300,00 €		2.891,88 €	10.966,28 €		
7100 Guztira											49.951,23 €	134.942,98 €			35.635,41 €	839,00 €	300,00 €	3.967,74 €	40.742,15 €	175.685,13 €		
Ana Eriz	12	1	1	A2	F	501	2	10	2873,42	Turismo tek.	19.317,48 €	43.555,68 €	25,20	3.606,00 €	10.904,54 €	150,00 €		1.384,60 €	12.439,14 €	55.994,82 €		
Ines Caceres	12	1	1	A2	F	501	5		2578,32	Turismo lagun.	18.946,48 €	38.093,16 €	25,20	3.174,43 €	9.599,48 €	130,00 €		1.384,60 €	11.114,08 €	49.207,24 €		
Leire Parra	12	1	1	A2	F	501	5		2578,32	Turismo lagun.	18.946,48 €	38.093,16 €	25,20	3.174,43 €	9.599,48 €	130,00 €		1.384,60 €	11.114,08 €	49.207,24 €		
peoia	1	1	0,08		AB	506	5			peoia		1.938,00 €	38,70	161,50 €	750,01 €	130,00 €		0,00 €	880,01 €	2.818,01 €		
Uda ordezkapenak	8	1	0,67		AB	501	7		0	Turismo lagun.	0,00 €	23.676,56 €	32,10	1.973,05 €	7.600,18 €	0,00 €	300,00 €	0,00 €	7.900,18 €	31.576,74 €		
7300 Guztira											57.210,00 €	145.356,56 €			38.453,69 €	540,00 €	300,00 €	4.153,80 €	43.447,49 €	188.804,05 €		
Orientatzaileak	2	1	1		I	501	5					65.758,00 €	30,70	5.479,83 €	20.187,71 €	300,00 €	0,00 €		20.487,71 €	86.245,71 €		
Administrataria	12	0,5	0,5	C1	I	501	7	0	1089,03	Administrataria	7.637,91 €	16.148,79 €	30,70	1.345,73 €	4.957,68 €	100,00 €	0,00 €	1.135,96 €	6.193,64 €	22.342,43 €		
7005 Guztira												81.906,79 €			25.145,39 €	400,00 €	0,00 €	1.135,96 €	26.681,35 €	108.588,14 €		
Energia teknikoak	6	2	0,5		I	501	1					18.754,82 €	30,70	1.562,90 €	5.757,73 €	300,00 €			6.057,73 €	24.812,55 €		
7045 guztira												18.754,82 €			5.757,73 €	300,00 €	0,00 €	0,00 €	6.057,73 €	24.812,55 €		
Amaia Irizar	12	1	1		I	501	5					27.224,05 €	30,70	2.268,67 €	12.536,67 €		150,00 €		12.686,67 €	39.910,72 €		
7080 Guztira												27.224,05 €			12.536,67 €				12.686,67 €	39.910,72 €		
Unai Kortabarria	12	1	1		AB	501	5			Valora		32.668,86 €	32,10	2.722,41 €	10.486,70 €		130,00 €		10.616,70 €	43.285,56 €		
7093 Guztira												32.668,86 €			10.486,70 €	0,00 €	130,00 €	0,00 €	10.616,70 €	43.285,56 €		
AG. GUZTIRA												413.630,01 €			115.478,92 €	2.079,00 €	730,00 €	9.257,50 €	127.545,42 €	541.175,43 €		
GUZTIRA												1.880.273,60 €			553.742,84 €	6.024,00 €	8.445,00 €	39.991,84 €	608.203,68 €	2.488.477,28 €		

Aurrekontu Orokorrak 2015

Aurrekontua gauatzeko Araua

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal-erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 6.3 artikuluan agindutakoaren arabera, Erakunde honek 2015an izango duen Aurrekontu Orokorra gauatzeko Arau hau ezartzen da.

1. artikulua.- Printzipio orokorrak

Aurrekontuaren onarpena, kudeaketa eta kitatzea Toki Ogasunak Arautzeko Legeak (2/2004 EDL, martxoaren 5koa) eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal-erakundeen aurrekontuei buruzko Foru Arauak (21/2003 FA, abenduaren 19koa), eta Arau honek (beronen indarraldia Aurrekontuak duen berbera izango delarik) ezartzen dutenaren arabera egin beharko da.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Arau hau Debagoieneko Mankomunitatearen Aurrekontu Orokorra gauzatu eta garatzeko aplikatuko da.

3. artikulua.- Aurrekontu Egitura

Aurrekontu Orokorraren egitura Ekonomia Ogasun Ministerioak 1989ko irailaren 20an emandako Aginduaren arabera da.

Beraz, aurrekontu-partida sailkapen organiko, programa eta ekonomikoaren bateratzeak definitzen du, eta unitate horren gain egingo da gastua gauatzeko eragiketen kontabilitate-erregistroa.

Gastuen egoerek eta sarrera-aurreikuspenek ere, sailkapen ekonomiko, programa eta organikoa erabiliko dute.

Zerga-kontrola 6. artikuluan ezarriko den lotura mailan egingo da.

4. artikulua.- Aurrekontu Orokorra

Debagoieneko Mankomunitatearen gastu eta sarreraren aurrekontua 12.119.146,44€koa da.

5. artikulua.- Aurrekontua gauatzeari buruzko informazioa

Hiruhileko natural bakoitza bukatu ondorengo hilabetean, Aurrekontu Bateratuaren gauzatze-egoera formulatuko du Kontu-hartzaileak, eta horrekin batera informazio osagarria emango da, gauzatze maila balioestea ahalbidetuko duena. Gauzatze-egoera hori Gobernu Juntari helaraziko zaio, jakinean egon dadin eta bere ondorioak izan ditzan.

6. artikulua.- Lotura juridikoaren maila

1.- Gastuetarako kredituak Aurrekontu Orokorrean edo behar bezala onarturiko horren aldaketetan baimenduta dauden helburu espezifikorako bakarrik erabiliko dira, eta izaera mugatzaile eta loteslea izango dute. Beraz, ezingo da hartu gastu-konpromisorik kreditu horien zenbatekoa baino handiagorik, eta erabat ezdeusak izango dira arau hori hausten duten akordioak, ebazpenak eta administrazio-egintzak, egon daitezkeen erantzunbeharren kalterik gabe. Muga horren betetzea hurrengo atalean ezarritako lotura juridikoaren mailan egiaztatuko da.

2.- Aurrekontuaren kudeaketa egokirako, beharrezkotzat jotzen da gastuetarako kredituen lotura hau ezartzea:

- 1 kapituluan, kapitulu eta programak udal ekarpen motaren arabera baturik. Ingurumen zerbitzu osoa ez dira inorekin batzen eta beste guztiek bat egiten dute.
- 2 eta 6 kapituluan, departamendu eta programa-taldearen mailan.
- 3, 4, 7, 8 eta 9 kapituluentzat departamendu eta programa mailan.

KREDITUEN ARAUBIDE OROKORRA

7. artikulua.- Kredituen aldaketa

Gastu bat egin behar denean, horretarako diru-esleipenik ez dagoenean eta lotura juridikoaren maila gainditzen duenean, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Aurrekontu Aldaketarako dagokion espediente bideratuko da, Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan zerrendatutako artetik:

1. a) kreditu-transferentziak
2. b) kreditu-gaikuntzak
3. c) kreditu-txertatzeak
4. d) baliogabetzearen ziozko baxei buruzkoa
5. e) kreditu gehigarriak
6. f) itunei buruzkoa

Aldaketa-espedienteak legezko aginduetara eta hurrengo artikuluetan arautzen diren berezitasunetara makurtuko dira.

8. artikulua.- Kreditu-transferentziak

Kreditu-transferentzia gastu-aurrekontuaren aldaketa bat da, bere zenbatekoa aldatu gabe, kreditu baten zenbateko osoa edo partziala lotura juridiko desberdinetako aurrekontu-partiden artean intsuldatzen denean.

Kreditu-transferentziak aurrekontu-partida berriak sortzea inplika dezakete.

Edozein motako kreditu-transferentziek ondorengo muga hauek izango dituzte:

- a) Ez dituzte gutxituko transferentzia-sistemaren arabera edo kreditu gehigarrien bidez gehitutako ordainketa-kredituak, ezta konpromiso-kreditua Aurrekontu-araudiari buruzko Foru Arauaren 22.4 artikuluan ezarritakoaren arabera gehitua daukatena ere.
- b) Ez dituzte gehituko beste transferentzia batzuen ondorioz gutxituak izan diren kredituak.
- c) Zabalgarritzat jotako kredituak gutxitu ahal izango dituzte, baina kalifikazio hori galduta, eta beraz geroago ezingo dira gehitu.

Aurreko muga horiek ez diete eragingo pertsonaleko kredituei buruzko transferentziei, eta ez dira aplikatuko ere Gobernu Juntak onartutako administrazio-berrantolaketak eragindako transferentziei.

Ekitaldian onartzen diren kreditu-transferentziek 21/2003 Foru Arauak 14.6 artikuluan ezarritakoa bete beharko dute, hau da, hasierako defizitik gabe, eta eragiketa arruntengatik sarrerak izan daitezela, gutxienez, izaera bereko gastuen gehi zorpetzegatiko amortizazio-gastuen berdinak.

Eskumena

Programa-talde baten barruko transferentziak toki-erakundeko lehendakariaren eskuduntza izango dira, salbu inbertsio errealetarako aurreikusitako diru-kontsignazioak gutxitzen dituztenak. Inbertsio gutxitzea programa eta departamendu berdineko inbertsioak finantzatzeko bada, batzorde informatiboaren oniritziaz onar dezake lehendakariak, besteak Gobernu Juntak onartuko ditu.

Programa-talde arteko transferentziak Erakundeko lehendakariak onartuko ditu, jatorrizko eta helburuko programetan metaturiko aldaketek hasieran aurreikusitako kontsignazioen %25 gainditzen ez badute eta inbertsio errealetarako kontsignazioak gutxitzen dituztenean izan ezik.

Gainerako kasuetan, erabakia Gobernu Juntak onartuko du.

Izapideak

- Korporazioko lehendakariak espedientea hastea.
- Kontu-hartzaitzaren txostena.
- Lehendakariak edo, hala dagokionean, Gobernu Juntak onartzea.

9. artikulua.- Kreditu-gaikuntzak

Ekitaldian lortutako diru-sarrerek —Erakundearen Aurrekontuetako sarrera-egoeretan aurreikusi gabeak direnean, edo horien kopuruak Aurrekontuetan aurreikusitakoak gainditzen dituztenean— Aurrekontuetako Gastuen Egoeretan kredituak sortu ahal izango dituzte.

Kreditu berrien gaikuntzarako, edota aurrez daudenak handiagotzeko, erabili ahal izango dira 21/2003 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal-erakundeen aurrekontuei

buruzkoan, 31. artikuluan 2. atalean zerrendaturiko eragiketetatik eratorriak, aipaturiko artikulua 3 eta 4. ataletan ezarritako baldintzak betez.

Onarpena

- Zerbitzu bakoitzeko arduradunaren proposamena
- Kontu-hartzaitzaren txostena
- Espedientea onartzea, lortutako diru-sarrerek izaera finalista dutenean, Korporazioko lehendakariari dagokio. Gainerako kasuetan, onartze hori Erakundeko Gobernu Juntari dagokio.

10. artikulua.- Kreditu-txertaketak

1.- Kasu bakoitzean, indarrean dagoen ekitaldikoak izanik, bakoitzaren aurreko ekitaldiko aurrekontuetako gastu-orrien barruko ordainketa-kredituak txertatu ahal izango zaizkio Toki-erakundearen Aurrekontuari, betiere jada onartutako betebeharrak edo obligazioen menpe ez badaude eta ondorengo kasu hauetakoren batekoak direnean:

- a) Baimendutako transferentziaren xede izan diren kredituak eta kreditu gehigarriak, betiere, kasu bietan, ekitaldiko azken hiruhilekoan emanak direnean.
- b) Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, betiere, bidezko arrazoiak direla-eta, beraiekiko betebeharrak ezin hartua denean.
- c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketen ziozko kredituak.

2.- Kredituak txertatzen direnean, jatorrizko Aurrekontuan zuten helburu berdinarekin egingo dira.

3.- Kreditu-gerakinak txertatu ahal izateko, horretarako nahikoa finantza-baliabide egon beharko da.

4.- Kreditu-txertaketak erantsen diren ekitaldiaren barruan erabili beharko dira, geroago ezin daitekeelarik txertaketa gehiago egin, helburudun sarrera edo sarrera finalistaren bitartez finantzatzen diren kapital-eragiketak direnean izan ezik.

Halaber, txerta daitezkeen kredituak, 21/2003 Foru Arauan dauden xedapenak direla bide, ekainaren 30erako bakoitzaren aurrekontuei txertatzen ez bazaizkie, baliorik gabe geldituko dira.

5.- Kredituak eginkizun-egitarau edo programa barruan sartuz txertatuko dira, betiere programa horiek bakoitzaren jarraiko ekitaldiko aurrekontuetako gastu-orrien barruan sartuta egon eta, gauzatzeari dagokionez, txertatuak diren kredituak zeudenen jarraipena direnean.

Beharrezkoa bada, programari alta emango zaio indarrean dagoen aurrekontuaren egiturari.

6.- Kreditu-txertaketak egiteko eskumena, aurreko zenbakietan dauden irizpide eta abiaburuekin bat etorritik, toki-erakundeko lehendakariak dauka, aurrez Kontu-hartzaitzako txostena eginda.

7.- Ordainketa-kredituak direnean, baldin eta onetsiak izandako ekitaldian konprometitu ez badira eta konpromiso-kredituei badagozkie, haien txertaketa eginez gero, azken kredituok ere automatikoki txertatuko dira.

11. artikulua. Baliogabetzearen ziozko baxak

Baliogabetzearen ziozko baxak 21/2003 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal-erakundeen aurrekontuei buruzkoan, 6.3 artikuluan 1, 2 eta 3. ataletan ezarritakoaren arabera egingo dira.

Baliogabetzearen ziozko baxa Gobernu Juntak onartuko du.

12. artikulua.- Kreditu gehigarriak

1.- Kontsignaturiko ordainketa-krediturik eduki gabe edo, kreditua edukita, berau aski ez bada eta gainera zabalgarria ez bada, eta gasturen bat egin behar eta Aurrekontu-araudiari buruzko Foru Arauan ezarritako aldaketa-erregimenaren bidez ezin bete denean, kreditu gehigarria emateko izapidera joko da.

2.- Kreditu gehigarriari buruzko espedientea Kontu-hartzaileak txostena eman ondoren izapidetuko da, 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan 2. atalean eskatzen diren agiriekin.

3.- Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, sinatu eta txostena eman ondoren, Gobernu Juntari bidaliko zaio, onets dezan. Edonola kreditu gehigarriak Epeleko fondotik finantzatuak direnean, Lehendakariak izango du kreditu gehigarriak onartzeko eskumena, betiere, kreditu hauen balio metatuak aurrekontuaren %5 gainditzen ez badu.

13. artikulua.- Kreditu zabalgarriak

Gastu-egoeren aurrekontu-kredituak gehitu egin ahal izango dira, zabaldu nahi den kredituari lotuta dauden sarreren aurrekontuan aurreikusitakoak baino eskubide handiagoak irmo aitortu edo onartuz.

Ondoren zerrendatuko diren Gastu Aurrekontuko partidak zabalgarriak izango dira:

<u>Partida</u>	<u>Deitura</u>	<u>Hasierako kreditua</u>
1.1000.833.920.00.01	Langileentzako aurrerakinak	10.820,00 €
1.3001.227.162.30.07	Hondakin ez onargarrien kudeaketa	250,00 €
1.3001.227.162.30.08	Garbiguneak: hondakin-garraioa	2.000,00 €
1.3001.227.162.30.73	Hondakin arriskutsu berriak kudeatzea	27.500,00 €
1.3001.227.162.30.74	Egurraren kudeaketa	22.500,00 €
1.3001.227.162.30.75	Plastikoaren kudeaketa	32.500,00 €
1.3003.227.162.10.81	Paper bilketa edukiontzietan	150.000,00 €
1.3003.227.162.10.82	Ontzien bilketa edukiontzietan	150.000,00 €
1.3003.227.162.10.83	Kartoi komertzial eta industrialak	275.000,00 €
1.3003.227.162.10.84	Paper bilketa atez-ate	160.000,00 €

1.3003.227.162.10.85	Ontzien bilketa atez-ate	315.000,00 €
1.3003.227.162.10.86	Bilketa lanen zerbitzu orokorren %40	62.000,00 €
1.3003.227.162.10.87	Pilen bilketa	3.500,00 €
1.3004.226.162.20.90	Ontziak	30.000,00 €
1.3004.226.162.20.92	Poltsa konpostagarriak	25.000,00 €
1.3004.227.162.20.80	Bilketa industrialdeetan	300.000,00 €
1.3004.227.162.20.81	Bilketa lanen zerbitzu orokorren %60	102.300,00 €
1.3004.227.162.20.82	Olio erabileraren bilketa	20.000,00 €
1.3004.227.162.20.83	Ehunkien bilketa	40.000,00 €
1.3004.227.162.20.84	Materia organikoa 5. edukiontzian	94.150,00 €
1.3004.227.162.30.85	GHK tarifak	1.400.000,00 €
1.3004.227.162.20.86	Traste handien bilketa	120.000,00 €
1.3004.227.162.20.87	Organikoa atez-ate	850.000,00 €
1.3004.227.162.20.88	Zaborrak edukiontzietan	175.000,00 €
1.3004.227.162.20.89	Errefusa bilketa atez-ate	575.000,00 €
1.3600.623.162.30.99	Epeleko inbertsioak	1.842.595,72 €
1.3600.840.162.30.01	Epeleko fondoari ekarpena	0,00 €

Partida horiek ondorengo baliabideekin finantzaturiko gastuetarako dira, espresuki lotuta daudenak partida horiekin:

2.1000.833.920.00.01	Ordainketen aurrerakina berreskuratzea
2.300x.300.162.10.xx	Txatarraren salmenta, baterien salmenta, paperaren salmenta, edukiontzi urdineko paperaren salmenta, atez ate bildutako paperaren salmenta, ontzi salmenta, poltsa konpostagarri salmenta...
2.300x.396.xx.xx	Ecoembes sarrerak
2.3600.310.162.30.13	Epeleko tasak (epeleko ekarpenak handitzeko)
2.3600.560.162.30.01	Epeleko fondoaren interesak (epeleko ekarpenak handitzeko)
2.3600.861.162.30.01	Epeleko fondoa (epeleko inbertsioak finantzatzeko)

Espediente hori onartzeko eskumena duena: Korporazioko lehendakaria

AURREKONTUAK GAUZATZEKO PROZEDURA - GASTUAK

14. artikulua.- Gastuen Aurrekontua kudeatzeko faseak:

1. Gastuen Aurrekontuen kudeatzea fase hauen bidez egingo da:

- a) Gastua egiteko baimena. (A)
- b) Gastuaren xedatze/erabiltze edo konpromisoa. (D)
- c) Betebehar edo obligazioa onartzea eta kitatzea. (O)
- d) Gastua agintzea. (ME)
- e) Ordainketa materialki gauzatzea. (P)

2. Hala ere, eta zenbait kasutan berariaz horrela ezarrita dagoenean, Gastuen Aurrekontua kudeatzeko administrazio-egintza berberak aipaturiko kudeatze-fase bat baino gehiago hartu

ahal izango ditu, eta horiek metatzen dituen administrazio-egintzak administrazio-egintza banatuetan erabaki balira bezalakoxe efektu edo ondorioak izango ditu. Baina soil-soilik kasu hauek eman daitezke:

- a) Baimentzea-Xedatzea/Erabiltzea.
- b) Baimentzea-Xedatzea/Erabiltzea – Betebeharra onartzea.

Kasu honetan, erabakia hartzen duen Organoak eskumena izan behar du bertan sartzen diren fase guztiak eta bakoitza ere erabakitzeko.

15. artikulua.- Gastuak baimentzea. (A)

1. Gastua Baimentzea gastua gauzatzeko prozeduraren hasiera da, eta zenbateko finkoa edo gutxi gorabeherakoa duen gastua kreditu jakin baten kargura egitea erabakitzen deneko egintza da; kreditu osoa edo zati bat erabiltzen da horretarako.

2. Aurrekontuetan baimendutako kredituen barruan, gastuak Erakundeko lehendakariak edo Gobernu Juntak baimenduko ditu, edota indarreko arautegiaren arabera horretarako ahalmena duten organoek. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ezarri behar dira, gastu-baimentzeari dagokionez egin diren deskontzentrazio edo eskuordetzeak.

3. Zehatz esanda, gastua baimentzea honako hauei dagokie:

GOBERNU JUNTARI

- 10.000 € baino gehiagoko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa.
- Urte anitzeko gastu guztiak onartzea.
- Aurrekontuan diru-kontsignaziorik ez duten 1.000€tik gorako gastuak onartzea.

KORPORAZIOKO LEHENDAKARIARI

- 10.000€-tarainoko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, horretarako aurrekontuan diru-kontsignazioa baldin badago.
- 10.000 € eta 30.000 € arteko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, horretarako aurrekontuan diru-kontsignazioa baldin badago, eta aurrez Informazio Batzordeak dagokion proposamena egin ondoren.
- Aurrekontuan diru-kontsignaziorik ez duten 1.000€tik beherako gastuak onartzea.

Larrialdi eta premiazko kasuetan, edozein kopurutako gastuak baimendu ahal izango ditu, gero horren berri Gobernu Juntari emanez, hau jakinaren gainean egon dadin.

ZERBITZU BAKOITZEKO ARDURADUN POLITIKOARI

- 5.000€-tarainoko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, bere zerbitzuari dagozkion gastuetan.
- 5.000 € eta 22.000 € arteko obra, zerbitzu eta hornikuntzen kontratazioa, horretarako aurrekontuan diru-kontsignazioa baldin badago, eta aurrez bere zerbitzuko Informazio Batzordeak dagokion proposamena egin ondoren.

ZERBITZU BAKOITZEKO ARDURADUN TEKNIKOEI

- 300 €-ko edo gutxiagoko gastu arruntetarako.

Gastuak baimentzeko espedientea Zerbitzuko arduradun teknikoaren proposamenez hasiko da, gastuaren premia arrazoitu edo justifikatuko duen txostenaren bidez. Zerbitzuaren arduradunak artikulua honetan ezarritako organo eskudunari aurkeztuko dio gastuaren premia, onespena eman diezaion, eta gero Kontu-hartzaitzara bidaliko du bere fiskalizaziorako eta dagokion txostena egiteko, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

16. artikulua.- Nahitaezko baimen-hipotesiak

1. Kontratazio-espedientea behar duten gastu guztietan, nahiz eta zuzeneko kontratazioa izan, espedientearen hasieran “A” Agiria tramitatuko da, dagokion Zerbitzuak egindako proiektuaren kostu edo aurrekontuaren kopuru berdinez.
2. Oso kasu larri eta premiazkoetan bakarrik egingo dira mandatuak, Baimen-izapiderik gabe. Baina horrelako kasuetan, espedientea bideratzeko agiriak prestatuko dira, eta Kontu-hartzaitzara helaraziko dira hurrengo lehen lan-egunean.

17. artikulua.- Gastuen Xedatzea/Erabiltzea. (D)

1. Gastuen Xedatze/Erabiltze edo Konpromisoa aurrez baimendutako gastua egitea erabakitzen duen egintza da. Adierazgarritasuneko garrantzi juridikoa du besteez, eta Toki Erakundeak gastu zehatz eta jakin bat egitera lotzen du, bai bere kopuruan eta bai bera gauzatzeko baldintzetan.
2. Gastuen Xedatze edo erabiltzea onartzeko Organo eskudunak hori Baimentzeko eskumena dutenak dira.

18. artikulua.- Betebehar edo obligazioa onartzea. (O)

1. Egintza honen bidez Erakundearen aurka eska daitekeen kreditu bat dagoela aitortzen da, baimendutako eta konprometituriko gastu batetik datorrena, organo eskudunaren aurrean prestazioa egin dela edo hartzekodunaren eskubidea agiri bidez egiaztatzen bada, bere garaian gastua baimendu eta konprometitu zuten erabakien arabera.
2. Zerbitzu bat emate hutsa edo hornikuntza edo obra bat egite hutsa ez da aski titulu Erakundeak bere burua zordun jotzeko kontzeptu horrengatik, agintaritzaren edo organo eskudunak ez baditu haiek errekeritu edo eskatu. Aurrez ez bada egon dagokion baimentzea, pertsona bakarraren betebehar edo obligazioa sor daiteke materialak eta efektuak itzultzeko edo hornitzaileari edo gauzatzailari kalte-ordaina emateko.
3. Betebeharraren onartzea egiaztatzeko agirietan gutxienez honako datuak sartu behar dira:
 - a) Erakundearen identifikazioa.
 - b) Kontratatzenaren identifikazioa.
 - c) Fakturaren zenbakia.
 - d) Egindako horniduraren edo emandako zerbitzuaren deskribapen nahikoa.
 - e) Mandatua egin zuen Zerbitzua.

- f) Esleipena babesten duen gastu-espediterearen zenbakia.
- g) Hala badagokio, aurrez fakturatutako zenbatekoa, aipatu gastuari buruz.
- h) Kontratistaren sinadura.

4. Aipaturiko agiri edo dokumentuak hartuta, dagokion Zerbitzura bidaliko dira, adostuak izan daitezen, zerbitzua edo hornikuntza kontratuko baldintzen arabera gauzatu dela egiaztatuz.

5. Betebehar hori beteta, Kontu-hartzaitzara bidaliko da, han fiskalizatzeko. Erreparorik egonez gero, Zerbitzura itzuliko dira, aurkitutako akatsak zuzen daitezen, hori posible bada, eta bestela hornitzaileari itzuliko zaizkio dagozkion oharrekin.

6. Adostasunez fiskalizatu ondoren, Korporazioko lehendakariari helaraziko zaizkio, onar ditzan.

7. Betebehar edo obligazioen onartzea fakturen zerrenda batean jaso ahal izango da agiri gisa.

19. artikulua.- Gauzatzeko faseen metatzea

Egintza bakar batean metatu daitezke eragiketa arrunten izaera duten gastuak, baita Kutxa Finkoko aurrerakinen bidez egiten direnak eta Zuritu edo Justifikatu beharrekoak ere. Zehatzago esanda:

- Korporazioko kideen eta Aurrekontuarekin batera onartzen den lanpostuen zerrendako langile guztien egun-sariak, bidai gastuak, kalte-ordainak, laguntzak eta ordain-sariak.
- Berandutzagatiko interesak eta beste finantza-gastu batzuk.
- Funtzionarioei itzul dakizkiekeen aurrerakinak.
- 221 eta 222 kontzeptuetako hornikuntzak, iragarkiak eta harpidetzak, Estatuaren zerbitzuengatiko kargak, eta estatuko edo autonomia erkidegoko legeek ezarritako gastuak.
- Aurrekontuan izen eta guzti emanda agertzen diren diru-laguntzak.
- Alogerak, kontrataturiko aseguru-sariak eta laguntza finkoak, orokorrean, horien ordainketa behar bezala onarturiko kontratuaren ondorio denean.
- Gizarte Segurantzako kuotak, graziazko hobekuntzak, sendagaiak eta langileentzako beste gizarte-laguntza batzuk.
- Posta, telegrafo eta telefono-zerbitzuengatiko gastuak, aurrekontu-kredituaren barruan.
- Eta orokorrean, Toki Erakundeak lege hartutako konpromisoen ondoriozkoak, egin beharreko zerbitzu, obra edo hornikuntzaren kostua ezagutzen bada, eta hipotesi horretan sartuta bezala hartzen dira hornikuntzak, faktura bakoitzaren zenbatekoa 300,00 € baino gehiagokoa ez denean.

20. artikulua.- Ordainketa agintzea

1. Korporazioko lehendakariari dagokio ordainketak agintzea, ordainketa-aginduen zerrendatan gauzatutako administrazio-egintzaren bidez. Ordainketaren izaerak edo premiak eskatzen duenean, agintzea banaka ere egin ahal izango da.

2. Ekonomia eta administrazio-arintasunaren irizpidea kontuan, gastua onartzea Erakundeko lehendakariari dagokionean, aintzatetsitako betebeharrak onartzeko egintzan, horiek ordaintzeko agindua ere eman egingo da.

3. Ordainketa-aginduak Diruzaintzaren aurka onartu eta kitaturiko betebeharrak edo obligazioei buruz bakarrik egin ahal izango da.

21. artikulua.- Ordainketa-aginduak zuritu beharrekoak (Aurrekontu-ordainketak)

Zuritu beharreko ordainketa-aginduak dagokien ordainketatik hiru hilabeteko epean zurituko dira. Dena dela, abenduaren 15a baino lehen zurituta utzi behar dira.

22. artikulua.- Kutxa finkoko aurrerakinak

Kutxa finkoko aurrerakinak eman ahal izango zaizkie zerbitzu mankomunitatuen kudeatzaileei, 500 €-ko zenbatekoraino, emandako funtsak 3 hilabeteko epean zuritu behar direlarik, horiek zaintzeko ardura duenak ematen dituen unetik (Aurrekontuz kanpoko ordainketak). Dena den, ekitaldiko abenduaren 31n aurrerakin guztiak zurituta egon behar dute.

23. artikulua.- Egun-sari, bidaia eta lekualdatzeengatiko kalte-ordainak

Funtzionarioek eta lan-kontratuko langileek eskubidea dute, hala badagokie, Eusko Jaurlaritzaren 16/1993 Dekretuak, otsailaren 2koak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, ezartzen dituen ordainak jasotzeko. Halaber, aplikatu beharrekoak izango dira Dekretu horren xedapen osagarriak eta kalte-ordainen zenbatekoa aldizka berrikusten duten Dekretuak ere.

24. artikulua.- Ekintza-programa gauzatu aurretiko jardunak

Ekintza-programa gauzatzen hasi aurretik ondorengo hauek bete behar dira:

1. Mankomunitateak ekitaldi horretarako duen Aurrekontu Orokorra onartzea, non behar hainbateko kreditua sartu beharko den aipaturiko Ekintza Programaren ondoriozko gastuei aurre egin ahal izateko.
2. Mankomunitateko Gobernu Juntaren berariazko erabakia aipaturiko Programa gauzatzeko, onartuz halaber ekintzen zehaztapena eta horren gastu-aurrekontua.
3. Programatik eratorritako gastu guztiak eta bakoitza baimentzea, ekintzak gauzatu joan ahala, Aurrekontua Gauzatzeko Arau honen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Gastu Aurrekontua kudeatzeko gainerako faseak, alegia:
 - Gastuaren xedatze/erabiltzea edo konpromisoa. (D)
 - Betebeharraren onartzea eta kitatzea. (O)
 - Gastuaren agindua. (ME)
 - Ordainketa materialki gauzatzea. (P)

AURREKONTUA GAUZATZEKO PROZEDURA - SARRERAK

26. artikulua.- Eskubideen onartzea. (R)

- a) Eskubideen onartzea egingo da Erakundearen alde kitatze edo likidazio bat dagoela jakin bezain pronto. Ondorio horietarako, kitapena adostasunez fiskalizatuta, onartu egingo da eta, aldi berean, kontabilitatean idazpena egingo da.
- b) Beste Administrazio, erakunde edo partikular batzuegandik hartu behar diren diru-laguntza edo transferentzien kasuan, zenbait betekizun betetzeko baldintzapean, konpromisoa akordio formalaren unean kontabilizatuko da.

27. artikulua.- Kobrantzen kontabilizazioa. (I)

1. Bilketatik datozen Sarrerak, horien aurrekontu-aplikazioa ezagutzen ez den bitartean, Aplikatzeke dauden Sarrera gisa kontabilizatuko dira.
2. Gainerako sarrerak beharrezko aginduaren bidez formalizatuko dira, dagokien aurrekontu-kontzeptuari aplikatuta, sarrera gauzatzen den unean.
3. Zerbitzu-kudeatzaileek diru-laguntzak emateari buruzko informazioa dutenean, berehala Kontu-hartzaitzari jakinarazi behar diote, horien jarraipena egin ahal izateko.
4. Bankuko kontuetan zeinahi ordainketa egiten den unean, Diruzaintzak Kontu-hartzaitzari jakinarazi behar dio horren kontabilitate-formalizazioa egin dezan.

28. artikulua.- Fiskalizatorako arau bereziak

1. Ez dago aurrez fiskalizatu beharrik Gastuen Baimentze edo Xedatze/Erabiltze faseak, hornikuntza txikiei edo aldizkako gastuei eta segidako traktuko gainerakoei dagozkienak, hasierako egintza edo kontratuari dagokion gastuaren kontu hartu ondoren.
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuei dagokienez, fiskalizazio mugatua egingo da, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legeak 200.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta soilik honako hauek egiaztatzen mugatuko da:
 - a) Aurrekontu-kreditua dagoela eta proposatutakoa hartu nahi den gastuaren edo betebeharraren izaerarako egokia dela.
 - b) Betebeharrak edo gastuak organo eskudunak sortuak direla.

- c) Kudeaketa-prozesuan duten garrantziagatik, eta lehendakariaren proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak erabakitzen dituenak.

Dena den, aipaturiko betebeharrak edo gastuak bete-betean fiskalizatuko dira gero aginduaren beraren 3. zenbakian dioenaren arabera.

ZORPETZE MAILAREN GEHIENEZKO MUGA

29. artikulua.- Zorpetze mailaren gehienezko muga

Ez da zorpetzerik aurreikusi. Mailegua egitekotan, gobernu batzordeak finantza plan berria onartu beharko du, betiere araudiak finkatutako limiteak errespetatuz.

Kontratua sinatu aurretik, kontratuaren proiektua onartuko da, non agertuko diren kontratuaren ezaugarri guztiak.

Maileguak onartzeko eskumena lehendakariarena izango da 2014ko likidazioko baliabide arrunten %10a gainditzen ez badu, bestela eskumena gobernu batzordearena izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena: Oinarri hauetan ezarri gabeko gaietan, orokorrean indarrean dagoen Toki-legeria, Aurrekontu Lege Orokorra, Zerga Lege Orokorra eta aplikatzekoak diren gainerako arauak beteko dira, baita Korporazioak erabakitzen duena ere, aldez aurretik Kontu-hartzaileak txostena eginda.

Bigarrena: Korporazioaren lehendakaria da Oinarri hauek interpretatzeko organo eskuduna, aurrez idazkariak edo kontu-hartzaileak txostena eginda, nork bere eskuduntzen arabera.

AZKEN XEDAPENA.

Aurrekontua gauzatzeko oinarrien proiektu hau behin betikotzat joko da eta aplikatu egingo da onartu ondoren, eta 2015ko ekitaldi ekonomikorako Aurrekontua indarrean dagoen bitartean aginduko du, baita Aurrekontu horren luzapenean ere, baldin eta 2015.01.01ean ez bada indarrean sartzen 2015. ekitaldirako Aurrekontua.

Arrasaten, 2014ko abenduaren 19an
LEHENDAKARIA
Izpta.: Inaxio Azkarraga-Urizar Larrea